

## Donostiako Zinemaldia hizkuntza erabileraren neurketa 2014

Donostiako Zinemaldiak, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren diru laguntza jasotzen du eta EAEn euskara hizkuntza ofiziala denez, Donostiako Udal Ordenantzek hala jasota, euskarak, gutxienez, gaztelaren trataera berdina izan behar du. Baina ondorioetan ikusiko dugunez, hau ez da horrela gertatzen. Are gehiago euskararen erabilera txikia izaten jarraitzen du:

### AHOZKO ERABILERA

Orokorrean, Nazioarteko Zinemaldian antolakuntzatik, gaztelera, euskara eta ingelesa erabiltzen da, baina, dudarik gabe, gaztelera gailentzen da. Euskararen ahozko erabilera agurrak egitera mugatzen da askotan, eta bi hitzetan gelditu ohi da. Euskaraz ematen den informazioa ez da itzulpena izaten baizik eta erabiltzen den hizkuntza bakoitzean informazio propioa ematen da. Hau positibotzat jotzen dugu.

**Ekitaldi berezietan** euskarak merezi duen lekua izateko asko falta da (bai ahozko erabileragatik eta baita proiektatzen diren bideoetan azpigituluak gaztelera hutsez izaten direlako). Ekitaldi hauetako aurkezle bat gutxienez euskalduna izan ohi denez, aurrerapauso garrantzitsuak emateko aukerak daudela uste dugu. Defizit hau hobetzeko dauden oztopoez jabetzen gara, baina oztopo horiek sortzen dituztenei euskararen presentzia areagotzeak daukan garrantzia erakutsi eta aurrerapausoak eman beharko liratekeela uste dugu.

**Aurkezpenetan** ere, gaztelera nagusitzen da gehienetan. Kasu askotan aurkezpenaz gain, filmeko parte hartzailearen batek hartzen du hitza eta euskaraz ez den beste hizkuntza batetan egin ohi du. Beste hizkuntza bat erabiltzen denean itzulpena gaztelarrera egiten da soilik.

**Solasaldietan** ere gaztelera da nagusi. Aurkezpenetan bezala beste hizkuntzaren bat erabiltzen denean gaztelarrera itzuli ohi dira erantzunak. Zabaltegi topaketetan eta Horizontes Latinoaseko gosarietan ez zen euskara ezertarako erabiltzen, are gehiago, ez zegoen aldibereko itzulpenik euskaraz.

Horregatik, Bagera Elkartek uste du, Zinemaldian euskararen presentzia sustatu eta areagotu nahi bada, instituzioek ahalegin berezia egin beharko luketela filmak euskarazko azpidatziak izan ditzaten edota euskaraz ekoiztutako filmetan diru-laguntza gehiago inbertituz.

### FILMAK

Sei urte pasa dira, Euskal Zinemaren Eguneetik euskal zinemak sail propioa izatera pasa zela. Euskal Herriko zuzendarien, eta Euskal Herriko ekoiztetxeek ekoiztiriko filmak Zinemira-Euskal Zinemaren Panorama atalean ikusi ahal dira

orain. BAGERA Elkartek aurrerapausotzat jotzen duen arren, beti aipatu izan du ez dela nahikoa euskararen presentzia bermatzeko. Alde batetik, Zinemira sailak ez baitu euskararen presentzia bermatzen eta bestetik, euskarak sail guztietara zabaltzeko behar dela uste dugulako Zinemaldian euskararen normalkuntza gauzatu dadin. Iaz, Zinemiran parte hartutako 6 filmetatik filma bakarra euskaraz ekoitzi zen eta beste 2 filmek euskarazko azpidatziak izan zituzten. Emanaldiei dagokienez, proiektatu zituzten 14 emanaldietatik 4 emanaldiek, bakarrik, izan zuten euskararen presentzia (%28,57 hain zuzen. 2013an, berriz, %55).


Sail eta filma guztiak kontutan hartuta honakoak dira kuantitatiboki 2013 urtetik 2014 urtera Zinemaldian izan zen euskararen garapena:

Iaz (2014 urtean), 203 filmetatik 3 filma euskara hutsez ekoitziak izan ziren eta beste 3 bi eletan. Euskarara azpidatziak izan ziren filmak, berriz, 26 filma eta 6 euskarara bikoiztuak (haurren zikloan proiektatutakoak hain zuzen). Ezin dugu aipatu gabe utzi, iaz Donostiako Zinemaldiaren Sail Ofizialean, 25 urte ondoren, euskara hutsezko filma bat ikusteko aukera izan genuela Zinemaldiko historian bigarren aldiz; *Loreak* Filma hain zuzen ere. Sail Ofizialean aurkeztutako lehen filma Antxon Ezeizaren *Ke arteko egunak* izan zen, 1989an.

2013ko datuekin alderatuta, euskaraz izandako filmen kopurua %10,50tik %18,72ra igo zen.

Emanaldiei dagokienez, iaz azpidatziak izan ziren filmen kopurua %5,92a izan zen (2013 urtean %6,55a), euskara hutsez edo bi eletan ekoitzitako filmen emanaldiek, berriz, gora egin zuten (%1,80tik %4,00ra) eta euskarara bikoiztutakoak berriz iazko portzentajea mantendu ziren (Haur sailean proiektatutako filma guztiak euskarara bikoiztuak izan ziren 2013an bezala).

Hona hemen grafikoki euskarak izan duen garapena urtez urte portzentajeetan:



Orokorrean hartuta, iazko Zinemaldiaren filmen kopuruan euskarak gora egin badu ere (%10,50etik %18,72ra), oraindik ere euskararen presentzia oso urria jarraitzen du izaten (203 filmetatik 38 filmek izan dute euskararen presentzia eta 625 emanaldietatik 68tan erabili da).

Horretaz gain, euskaraz ekoiztutako, azpidatzitako edota bikoiztutako filmak sail guztietara zabaldu behar direla uste du BAGERA Elkartek. Urtetik urtera euskara sail ezberdinetara zabaltzen ari da baina oso modu apalean. Hona hemen sailez sail iaz euskarak izan zuen lekua (jatorrizko bertsioa euskaraz, euskaraz azpidatzia edo euskaraz bikoiztua izan delako):

Sail Ofiziala: 21 filmetatik 2 filmetan. Orotara 9 emanalditan.

**Zuzendari Berriak:** Euskarak ez zuen lekurik izan.

**Horizontes Latinos:** Euskarak ez zuen lekurik izan.

Perlak: 20 filmetatik 2 filmetan. Orotara 4 emanaldi.

Zabaltegi: 19 filmetatik 6 filmetan. Orotara 8 emanaldi.

Culinary Zinema: 11 filmetatik 4 filmetan. Orotara 7 emanaldi.

Savage Zinema: 6 filmetatik 2 filmetan. Orotara 2 emanaldi.

**Madein Spain:** Euskarak ez zuen lekurik izan.

Zinemira: 6 filmetatik 3 filmetan. Orotara 4 emanaldi.

**Belodromoa:** Euskarak ez zuen lekurik izan.

Haur Zinema: 6 filmetatik 6 filmetan. Orotara 6 emanaldi.

**TVE Gala:** Euskarak ez zuen lekurik izan.

ETB Gala: Filma bakarra proiektatu zen euskaraz eta gazteleraz ekoiztua.

Dorothy Arzner: 12 filmetatik 6 filmetan. Orotara 6 emanaldi.

Eastern Promises: 50 filmetatik 6 filmetan. Orotara 8 emanaldi.

**Emanaldi bereziak:** Euskarak ez zuen lekurik izan.

**Fipresci:** Euskarak ez zuen lekurik izan.

Beste hainbat jarduera: 4 filmetatik 3 filmetan. Orotara 3 proiektzio.

## IDATZIZKO MATERIALA

Oro har, Zinemaldiaren antolakuntzak argitaratutako idatzizko material gehienetan informazio guztia ele bitan edo hiru eletan dago euskararen erabilera bermatuz. Hala ere, sailen izenetan edo hauen laburduretan gaztelera lehenesten da argitaratutako euskarri gehienetan (esku egitarauan, filmen inguruan kaleratzen den liburuxkan, ...). Hau da, ND (Nuev@s director@s), PE (Perlas), V (Velódromo), CI (Cine Infantil)...

Bestetik, filmez filmeko gidan gazteleraz idatzitako testuak hizki lodiz daude, gaztelerazko testuak nabarmenago ikusten direlarik.

Egunero kaleratzen duten "Zinemaldia" egunkarian ere euskarak oso leku gutxi duela uste du Bagera Elkartek. Nahiz eta gaztelera, euskara eta ingelesa erabiltzen den, euskarak egunkariaren %20ra ez da iristen gaur egun.

Webgunearen kasuan, informazio guztia hiru hizkuntzatan aukera dezakezu (euskaraz, gaztelera eta ingelesez) baina helbidea gaztelera dago [www.sansebastianfestival.com](http://www.sansebastianfestival.com). Gauza bera gertatzen da sare sozialekin; Facebook-ak Festival de San Sebastián erakundea du izena eta informazio gehiena gaztelera argitaratzen da. Twiterraren kasuan, helbidea ere gaztelera dute @sansebastianfes eta izena Festival de S.Sansebastián hain zuzen. Kasu honetan, antolakuntzatik sartzen diren berriak, gehienetan hiru hizkuntzetan izaten dira.

Bestalde, egunkari ofizialean azaldutako iragarkiez gain, esku orriak, liburu gida, panelak, standak, etab. ere hartu ditugu kontuan. Ikaragarria da Zinemaldian zehar ikus dezakegun iragarki mordoak; baina, tamalez, ia gehienak gaztelera hutsean daude. Hemen ere, antolakuntzatik uste dugu ahalegin berezia egin beharko luketela iragarleek euskara ere erabil dezaten animatuz. Jakinaren gainean baikaude horrek, inolako zalantzarik gabe, herri honetako hizkuntza ofiziala den heinean, euskarari ematen dion laguntzaz gainera, publizitateari berari ere indar handiagoa emango diola euskararekiko atxikimendu handiko jende ugariaren aurrean.

Ahozko erabileran ez da aldaketarik nabaritzen azken urte hauetan, antolakuntzak ez erabiltzeaz gainera, jendeak erabil dezan ez delako sustatzen ari (hala nola, mahai inguru eta solasaldietan, langileen lehen hitzan, prentsaurrekoetan...). Inaugurazio eta amaiera ekitaldietan ere, euskararen presentzia oso urria da eta bideoen azpigituluak gaztelera bakarrik daude.

## **PROPOSAMENAK**

Hau guztia horrela, BAGERA Elkartek Donostiako Zinemaldian euskararen normalkuntzan pauso sendoak eman daitezen honako proposamenak egiten ditu:

1. **Sailen izen**en arteko oreka mantentzea, euskarazko edo ele bitan dauden sailak **programatuz** eta ondoren izen elebidun horiek Zinemaldiarekin erlazonaturiko arlo guztietan erabiltzea. Eta ele bitan dauden sailetan euskarak lehentasuna izatea (Sail Ofiziala, Belodromoa, Zuzendari Berriak...).
2. **Filmei** dagokienez, euskarak leku zabalago baten beharra duenez, gutxienez, aurreko urteetako emanaldi kopurua handitzen joatea proposatzen dugu, eta euskarazko emanaldiak sail guztietan izan daitezela. Hau da, instituzioek ahalegin berezia egitea euskarazko azpidatzietan eta euskaraz ekoitzitako filmetan.

3. Hainbat filmen aurretik egin ohi diren **aurkezpenetan**, erabiltzen diren hizkuntzen artean oreka mantentzea eta euskara ez mugatzea soilik lehenengo ongi etorriko bi hitzetara. Gonbidatuak gazteleraz egingo badute aurkezpena euskara hutsez egitea proposatzen dugu. Hala nola, gonbidatuek euskaraz zein gazteleraz ez den beste hizkuntzaren batean egingo badute itzulpenak euskarara eta gaztelarrera itzultzea (aurkezpena gehiegi ez luzatzeko euskara eta gaztelera tartekatu daitezke). Horrela bi hizkuntzen arteko oreka lortuko genuke.
4. **Ekitaldi berezietan** ere, euskararen erabilera areagotu behar da. Euskararen presentzia oso txikia izaten jarraitzen du. Gainera, ekitaldi hauetan, aurkezleetako bat (gutxienez) euskalduna izan ohi da eta horrek aukera ematen du euskararen normalkuntzari begira aurrerapausoak emateko.
5. **Solasaldietan**, aurkezpenak eta azalpenak modu orekatuan euskaraz eta gaztelaniaz izatea. Modu natural batean euskara erabiltzea. Eta, galderaren bat euskaraz eginez gero, erantzuna euskaraz jaso ahal izatea bermatzeaz gain, moderatzaileari irizpideak eman behar zaizkio euskarari lehentasuna emateko.
6. **"Zinemaldia" egunkarian** ere, atal bakoitzean idazten dena orekatuagoa izatea, hau da, sail edota atal guztietan euskararen presentzia egoteaz gain gaztelaren parekoa izatea. Bestalde, hainbat atal ele bitan jartzea edota leku arazoa dagoenean informazio bera eskaintzeko hizkuntzak tartekatzea. Bestetik, sailen izenetan euskarak lehentasuna izatea eta programazioan euskara bermatzea.
7. Zinemaldiaren antolakuntzak, Zinemaldiaren barnean dauden beste hainbat ekitaldi eta eragileren **idatzizko euskarrietan**, euskara normaltasunez erabiltzera bultzatzeko ahaleginak egitea.
8. Zinemaldiaren inguruan dauden **iragarle** anitzei Donostiako egoera linguistikoa azaltzea eta euskara normaltasun osoz erabiltzera animatzea.
9. Zinemaldiaren **aurretik** egiten diren **prentsurrekoetan** euskara gaztelaren neurrian erabiltzea.
10. Zinemaldiaren egunetan izaten diren **prentsurrekoetan** aldibereko itzulpena egiteko aukera dagoenez moderatzailearen hizkuntza euskara izatea proposatzen dugu, hala nola, agurrean, aurkezpenean, galdera tartean (*galdera gehiago?, Bai? Hurrengoa?, Mikrofonoa gerturatu...*).